

Larraulgo Antton Amonarriz kultur gune berriak iada zabaldu ditu ateak

LARRAUL. DV. Leku ederrean dago Larraulgo Kultur Gune berria; bere terrazetako batera irtenez gero, herriaren panoramika dotoren bat izango dugu aurrean. Antton Amonarriz Kultur Gunea jarri diote izen, herriko alkate izandakoaren oroimenez. Oraindik altzariak eta bestelako material inmobiliarioa falta bada ere, larraularrek iada badute aukera kultur gune berriaz gozatzeko. Oihane Ariznabarreta Larraulgo Kultur Dinamizatzaileak kontatu dizkigu kultur etxe berri honen inguruko xehetasunak.

Herriko enparantzatik gertu dago Larraulgo Kultur Gune berria. Oihanek azaldu digunez, eraikitzerakoan herriko paisaia errespetatu egin da eta aldi berean, gaur egungo korronteak jarraitu dira.

Hiru solairu ditu eraikinak. Beheko solairuan haurtzaindegia, tailerren gela eta biltegi bat daude. Haurtzaindegia 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat egokitua dago, azaldu digu Oihanek. Baina oraingoz, ez zaio erabilera hori emango. Izan ere, Asteasuko haurtzaindegia gertu dagoenez, momentuz legeak ez du uzten Larraulgoa martxan jartzen; horregatik, haurtzaindegia abian jartzea lortu bitartean, lokal bera ludotekarako erabiliko da.

Tailerren gela ere beheko solairuan dago. Iada hornitua dago, hau da, behar beharrezko altzariak badaude eta hasi dira umeentzako pintura ikastaroak ematen.

Oraindik hornitzeko dagoena erdiko solairuan dagoen liburutegia da. Momentuz, liburutegia udaletxeko egoitzan dago eta bere denbora beharko du eraikin berrira pasa arte. Liburutegiko materiala falta da, besteak beste, apalak, mahaiak, baita ordenagailuak ere, KZgunea ere bertan egongo baita. Liburutegia izango da, ziur asko, eraikin berrian martxan jartzen azkena, baina zerbitzu guztiekin jarriko da, kontatu digu Oihanek. Bileretako gela bat ere badago erdiko solairuan. Gela hau herriko edonork, edozein taldek erabili ahal izango du bere bilkurak egiteko. Horrez gain, antzerkiko tailerra ere bertan ematen da.

Bilera gelaren aurrean, komun publikoak eraiki dituzte. Hauetara, eraikinaren kanpoaldetik ere sar daiteke, kultur gunera sartu beharrik gabe, eta beti irekita egongo dira.

Goiko solairura igotzen bagara, ikusiko dugun lehenengo gauza Larraulgo armarrira irudikatzen duen leiho bat izango da, sagar bat eta gezi bat. Horrez gain, gela balioanitza, gizarte laguntzailearen bulegoa, eta biltegi bat daude goiko solairuan. Gela balioanitzean, besteak beste, ikusentzuteko ekitaldiak egingo dira. Gela hau ere estreinatu da iadanik, azaldu digu Oihanek, azaroaren amaieran aste kulturala ospatu zen herrian eta gela honetan Aupa Etxebeste! filma proiektatu zen.

Etorkizunera begira

Momentuz, pintura, antzerkia ludoteka eta kirol tailerrak ematen dira Antton Amonarriz Kultur Gunean. Beharrezko materiala eskuratzen denean, liburutegia eta KZgunea ere bertan izango dira. Aurrera begira dugun helburua kultur guneari bizia ematea da, hau da, izan dadila herritarrentzat gune aktibo bat, kontatu digu Oihanek. Oraingoan, tailerrak dauden uneetan bakarrik dago irekita, baina asmoa lehenik eta behin tailer horiek finkatu eta sendotzea da eta ondoren, eskaintza zabaltzea, kultur gunea denbora gehiagoz irekita egon dadin. Une honetan dauden tailer eta aktibitateak umeei zuzenduak daude, baina eskaintza hori helduei ere zuzendu nahi zaiela adierazi digu Oihanek.

Eraikin dotorea da Larraulgo Kultur Gune berria, barrutik zein kanpotik, gustu handiz eta detaile guztiak zainduz egina, batek baino gehiagok gazteleraz esango lukeen bezala, potxolada bat. Hil honen bukaeran inauguratuko omen dute. Oihanek esan bezala, erakin aparta daukagu, ezereen inbidiarik ez duena. Orain bizia eman behar diogu kultur gune berriari.